

UDALBATZA OSOA

Bilkura-akta

Ohiko bilkura

Data: 2017ko urtarrilaren 25a, asteazkena

2017ko otsailaren 15ean akta onesteko bilkuran egindako oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko. Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna da bilkuraren buru. Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Bertaratu ez diren zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP), bertaratu ezina arrazoitu du, Diana Rubio Lafuente (PP) eta Luis Felipe Campos Latre (PP), bertaratu ezina arrazoitu du.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, aldez aurretik eta arauzko publizitatearekin. Honako hau da

Eguneko Aztergaien Zerrenda

1. Onestea 2016ko abenduaren 21eko ohiko bilkurako akta.
2. Dekretuak eta alkatetza ebazpenak.

Pleno del Ayuntamiento; Acta de sesión 25 - I - 2017;

3. Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.

3.1. Behin betiko onestea txosnen esleipena eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza.

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.

5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.

6. Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea

6.1. Eh Bildu Oion taldeak aurkeztutako mozioa, "Gure segurtasun eredu propio baten norabidean, Espainiako indar polizialen erretiratzea aldarrikatzeko", eta EAJ-PNV taldeak aurkeztutako zuzenketa.

6.2. Nekazaritza eta abeltzaintzari lotutako etxebizitzaren erabileraren hirigintza parametroei buruzko interpretazio-oharra.

Azken puntua) Galderak eta eskaerak

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorriz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2016ko abenduaren 21eko ohiko bilkurako akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Ez da oharrrik egin.

Hau erabaki da:

1) Onestea 2016ko abenduaren 21eko bilkurako akta.

Aldeko botoak: 5 (bost); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), eta José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Abstentzioak: 2 (bi); Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

2. Dekretuak eta alkatetza ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, alkatetza dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2016ko 236/16tik 255/16ra bitartekoak, eta 2017ko 1/17tik 6/17ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

3, Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.

3.1. Behin betiko onestea txosnen esleipena eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza.

Alkate jauna: Garai tabernako titularrek idazki bat aurkeztu dute; horren bidez, Oiongo festetan txosnak jartzearen alde daude, baina konparaziozko bidegabekeria iruditzen zaie urte osoan zehar zerbitzua ematen duen, eta zerga eta tasa asko ordaintzen dituen enpresa bati abantaila eta erraztasun gutxiago ematea. Egia esan, ez da alegazio bat, eta ez dute testua ulertu; izan ere, ordenantzak ez dizkie pribilegio gehiago ematen txosnei tabernei baino.

Gamarra jauna: Oharra errespetatzen dut.

Villanueva Gutiérrez jauna: Adierazpen bat da. Onetsi dugun araudia betetzeko da. Betetzen badute, txosnek ez dute pribilegiorik izango. Gure ustez ez dago konparaziozko bidegabekeriarik.

Aurrekariak:

- 1) Oyón-Oiongo Udalak, 2016ko azaroaren 9ko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen txosnen esleipena eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza.
- 2) Txosnen esleipena eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza onesteko espedientea jendaurrean ikusgai jarri da udaletxeko iragarki-taulan eta azaroaren 11ko 126 zenbakiko Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean. Era berean, banan-banan jakinarazi zaie tabernetako jabeei.
- 3) Ikusgai egon den denboran ez da alegaziorik aurkeztu. Garai tabernako jabeek idazki bat aurkeztu dute; horren bidez, ez dute aldaketarik edo alegaziorik egiten hasiera batean onetsitako ordenantzaren testuaren gain.

4) Informazio batzordean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Behin betiko onestea txosnen esleipena eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza. Onetsitako ordenantza osoa jendaurrean ikusgai jarri da, Tokiko Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); , Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.

5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.

6. Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea

6.1. Eh Bildu Oion taldeak aurkeztutako mozioa, "Gure segurtasun eredu propio baten norabidean, Espainiako indar polizialen erretiratzea aldarrikatzeko", eta EAJ-PNV taldeak aurkeztutako zuzenketa.

Pleno del Ayuntamiento; Acta de sesión 25 - I - 2017;

Villanueva Gutiérrez jaunak (Eh Bildu Oion) mozioa irakurri du, "Gure segurtasun eredu propio baten norabidean, Espainiako indar polizialen erretiratzea aldarrikatzeko". Honela dio hitzez hitz:

Euskal Herria, Europako polizia eta indar armatu ratioirik altuena duen herria da. Kalkuluen arabera, lurralde osoan 23.000 efektibo daude, 3.000.000 biztanle duen eremu batean. Europako erakundeek aholkatzen duten estatistiken arabera, 6.000 polizia efektibo izan beharko lukete. Honek gainera, kostu ekonomiko izugarria du, 1.500 miloi euro ingurukoa urteko, zuzenean edo kupo moduan euskaldunok ordaintzen duguna.

Bertako polizia indarrez gain, Estatuetakoko indar armatu eta polizialen presentzia izugarria da. Hamarkada luzeetan bizi izan dugun gatazka armatuaren baitan, espainiar zein frantziar indar armatuak herri honetan izan duten presentzia biderkatu egin da. Bost urte luze badira, Aieteko Adierazpenaren baitan gatazka armatua herri honetatik desagertu zenetik. Hala ere, espainiar zein frantziar indarren presentziak bere horretan jarraitzen du. Inolako logikarik gabe burutzen dituzten funtzioak bikoizteaz gainera, egunerokoak dira oraindik hiritarren eskubideak justifikaziorik gabe murrizten dituzten ekintzak, errepideetako kontrolak, identifikazioak, jazarpenak... burutuz. Euskal Herritarron gehiengoak iraganeko orri hori gainditu nahi duen honetan desmilitarizazioaren eremuan urratsak emateko garaia iritsi da. Euskal eragile eta instituzioek bat egin behar dute beren jardun politiko eta instituzionalarekin norabide horretan.

Modu mailakatuan Euskal Herritik Estatuko Segurtasun Indarren erretiratzea beharrezkoa ikusten dugu. Era berean, herritarren babes eta zerbitzu lanak Euskal Poliziek betetzea da eman beharreko urratsaren beste atala.

Atalka egin beharreko bide horretan, Estatuko Segurtasun Indarren kopuru eta funtzioa gaur egun indarrean dagoen legedira egokituko da. Iraganean geratu diren egoerak ezin dira aitzakia izan, gaur egun gure herrian dagoen indar armatuen dentsitatea mantentzeko. Gaur egunean indarrean dagoen legeriaren arabera, eta modu progresiboan Ertzaintzak eta Nafarroako Foruzaingoak beren gain hartuko dituzte herritarren babes eta zerbitzu lanak, dagokien mailan herri bakoitzeko Udaltzainekin batera.

Hau guztia kontutan izanik, EH Bildu Oionek, honako ebazpen proposamena aurkezten dio Osoko Udal Batzarrari, bertan eztabaidatua eta onartua izan dadin:

- 1.- Udal honek, Espainiako Polizia Nazional, Guardia Zibil eta Espainiako Armadaren errepliege osoa aldarrikatzen du.
- 2.- Udal honek, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera eta Eusko Legebiltzarrak gehiengoz onartutako 111/2013 Legez besteko Proposamenarekin bat eginik, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eskatzen dio EAEko lurraldean egin beharreko errepliege plangintza burutu dezala eta Legebiltzarrean aurkeztu dezala, bertan eztabaidatu eta onartu dadin.
- 3.- Udal honek, Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuako Barne Ministerioa biltzen dituen Segurtasun Batzordean Legebiltzarrak onartutako plan hori gauzatzearen beharra aldarrikatzen du.

4.- Udal honek, hartutako erabaki honen berri emango die herritarrei, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, Espainiako Barne eta Defentsa Ministerioei eta Espainiako Gobernuaren Presidenteari.

Gamarra López Brea jauna: Ez daukat ezer esateko.

Alkate jauna: Ezin izan dugu zuzenketa bat adostu EhBildu Oionen mozioarekin, eta EAJ-PNV taldearen zuzenketarekin. Hortaz, mozioaren aurka bozkatuko dugu.

Eh Bildu Oion taldeak aurkeztutako mozioa bozkatu da, gure segurtasun eredu propio baten norabidean, Espainiako indar polizialen erretiratzea aldarrikatzeari buruzkoa:

Aldeko botoak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Aurkako botoak: 4 (lau); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

Abstentzioak: 1 (bat); Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Mozioa baztertu da.

Alkate jaunak EAJ-PNV taldeak aurkeztutako mozioa irakurri du, Espainiako indar polizialak erretiratzeari buruzkoa. Honela dio hitzez hitz:

Oyón-Oiongo Udalak berretsi egiten du espainiar Gobernuari egindako erreklamazioa, bere segurtasun-indar eta kidegoak beren eskumenen eremu hertsira egokitu ditzan, Gernikako Estatutuan eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoan xedatutakoarekin bat.

Oyón-Oiongo Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio utz diezaiola errekurtsio judizialen bidez Segurtasun Batzordean hitzartutako ertzainkopurua zalantzan jartzeari, eta Ertzaintza euskal gizartearen zerbitzura dagoen osoko poliziatzat hartzeko orduan jartzen dituen oztopoak albo batera utz ditzala, europar segurtasun-estrategia baten barruan, nazioarteko lankidetzara handia eskatzen duena operazio eta inteligentzia esparruan, Gernikako Estatutuan eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoan xedatutakoarekin bat.

Oyón-Oiongo Udalak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eskatzen dio Segurtasun Batzordearen baitan lan egin dezatela, Estatuak Euskadin dauzkan segurtasun-indar eta kidegoak egokitzeko irizpideak ezartze aldera, benetako segurtasun-beharren eta Gernikako Estatuak emandako eskumenen arabera.

Villanueva Gutiérrez jauna: Mozioa baztertu badugu, ez dago eztabaidarik zuzenketari buruz.

EAJ-PNV taldeak aurkeztutako zuzenketa, Espainiako indar polizialak erretiratzeari buruzkoa, indargabetu da eta ez da bozkatu, mozioa bozkatu ondoren baztertu egin delako.

6.2. Nekazaritza eta abeltzaintzari lotutako etxebizitzaren erabileraren hirigintza parametroei buruzko interpretazio-oharra.

Aurrekariak:

- 1) Nekazaritza eta abeltzaintzari lotutako etxebizitzaren hirigintza parametroei buruzko interpretazio txostena, goi mailako arkitekto batek idatzitakoa (erreferentzia: OI/17/013). Txostenak dioena espedientearen 1. xedapenean agertzen da. Erreferentzia alfanumerikoa: Hirig/ PGOUInterpreta1.
- 2) Legeria aplikagarria: otsailaren 17ko 14/2009 Foru Dekretua, Diputatuen Kontseiluarena. Horren bidez, Hirigintzako Plangintzaren Arabako administrazio erregistroa sortzen eta arautzen da.

Hau erabaki da:

- 1) Oyón-Oiongo Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren interpretazio-ebazpena igortzea. Edukia honako hau da: "Oyón-Oiongo Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren 1.6.1.6. artikuluko 4 eta 6 puntuetan xedatutakoa aplikatu beharko da nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenetan. Hala, soilik nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenera zuzendutako etxebizitzaren erabilera behar bezala araututa egongo da.

- 2) Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren 1. eranskin gisa gehitzea. Bere testu bategina ALHAOn (61 zenbakia) argitaratu zen 2011ko maiatzaren 20an.
- 3) ALHAOn argitaratzea interpretazio-ebazpenaren testu osoa. Eta era berean, probintzian gehien saltzen den egunkarian eta udaleko iragarki-taulan argitaratzea.
- 4) Eskatzea Arabako hirigintza planeamenduaren administrazio erregistroan izena ematea.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Azken puntua) Galderak eta eskaerak

Alkate jauna: Bihar banatuko ditugu taldeetako bozeramaileen artean 2017ko aurrekontuaren proiektua, eta aztertzeko eta zuzenketak aurkeztu ahal izateko egutegi bat. Espero dugu talde guztiak bertaratzea aurrekontuen eztabaidara. Gogorarazi nahi dizuet Campos jaunak bertaratu ezina arrazoitu duela, batzordeen eta bilkuraren datak atzeratu ditugulako, Gabonak direla-eta...

Villanueva Gutiérrez jaunak Dolores Ruiz Zuazo zinegotzia ordeztzeko prozesuagatik galdetu du.

Alkate jauna: Uko egin duela jakinarazi zaio Arabako Errioxako Kuadrillari. Talde popularreko bozeramaileari jakinarazi zaio Kuadrillan kargu bat hutsik dagoela, bete dadin. Era berean, jakinarazi da Dolores Ruiz zela funtsez arduratzen zinegotzia; hortaz, beste zinegotzi arduradun bat izendatu arte, ekarpenak bertan behera geratuko dira, taldearen ekarpen ekonomikoagatik.

Hauteskunde Batzorde Zentralak egiaztatutuna igorri du Félix Pérez Lozanoren izenean, PPko zerrendaren 6. hautagaia. Bestetik, bilkuraren data jakinarazi zitzaion, kargua hartu dezan. Kargua hartu arte postua hutsik dago eta ez du hori egiteko eperik.

Gamarra jauna: Ez naiz epailea hori erabakitzeko, baina ia bi legegintzaldi egon ziren bilkuretara etorri gabe, eta hautesleek ez zituzten zigortu...

Gamarra jaunak bilkura utzi du.

Jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:54an (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2016ko urtarrilaren 31n.

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE: